



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2019KO URTARRILAREN 31EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko urtarrilaren 31ean arratsaldeko 17:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Bakartxo Ripalda, Xabier Azpiroz, M^a Mar Ansorena eta Aitor Arangoa.

17:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.

2018ko abenduko ohiko batzarreko akta deialdiarekin batera bidali da eta bildutakoek aho batez onartzen dute.

2.- Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

- 2019/1 alkate ebazpena urtarrilaren 2koa Aioara Epelderi onartuz Aizarotzko 8 familien izenean Aizarotzko 8 familien izenean Aizarotzko 10. Poligonoko 32. lursaileko 2000 m²-ren errentarako egindako proposamena.
- 2019/2 alkate ebazpena urtarrilaren 2koa Arraratsko kontzejuari zuzendua Arraratsko kontzejuak eskatutako obra baimena Otsolako bidean langa kanadiarra egiteko onartuz
- 2019/3 alkate ebazpena urtarrilaren 8koa Jose Sagardiari zuzendua Olako 15. Poligonoko 37. Lursailean dagoen etxebizitzan kalefakzio sistema jartzeko baimena emanaz eta EIOZren likidazioa onartuz.
- 2019/4 alkate ebazpena, urtarrilaren 8 Teofila Azpirozi zuendua baimena emanaz Berueteko 11. Poligonoko 22. Lursailean dagoen etxebizitzan kalefakzio sistema jartzeko eta EIOZren likidazioa onartuz.
- 2019/5 alkate ebazpena, urtarrilaren 8koa Martin Ansorenari zuzendua aurkeztutako aitorpen arduratsua eta EIOZren likidazioa onartuz Itsasoko 4. Poligonoko 34.

Lursailean egurtegia egikaritzeko eta aipatutako lursailean dagoen etxebizitzan komuna berritzeko.

- 2019/6 alkate ebazpena urtarrilaren 8koa M^a Pilar Ochotorenari zuzendua Berueteko 12. Poligonoko 12. lursailean dagoen etxebizitzan komuna berritzeko, baimena emanaz eta EIOZren likidazioa onartuz.

- 2019/7 alkate ebazpena urtarrilaren 8koa Iruñeako Artzapezpikutzari zuzendua Orokietako 8. Poligonoko 16. lursailean dagoen elizaren teilatua berritzeko EIOZren likidazioa onartuz.

- 2019/8 alkate ebazpena urtarrilaren 16koa Udabe Beramendiko kontzejuari zuzendua bereizte baimena emanaz 87. Lursaileko 1.529,59 m² Udabeko 1. Poligonoko 44. Lursailarekin elkartzeko eta 44. Lursaileko 6.633,95 m², polígono bereko 87. Lursailarekin elkartzeko.

- 2019/9 alkate ebazpena urtarrilaren 17koa Aralar Musika Eskolari zuzendua baimena emanaz Aralar Musika Eskolari otsailaren 28an Apeztegiberriko ganbara erabiltzeko arratsaldeko 15.30tatik aurrera 'Zeharkako Xirula eta Saxofoi Audizioa' egiteko

- 2019/10 alkate ebazpena urtarrilaren 25ekoa esleituz Ihabengo sareen eraberritze eta udal hodira lotzeko obra kontratua, B31263544 IFK zenbakidun Coyser S.L. empresari, 184.779,51 eurotan (BEZ kanpo).

- 2019/11 alkate ebazpena urtarrilaren 9koa Allianz Aseguro enpresari zuzendua 2017ko urriaren 15ean orkatz batekin egondako auto istripu baten erreklamazioz onartzen ez dela onartuz.

Bildutakoak ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

3.- 2019ko lan egutegia.

Alkateak irakurtzen du Basaburuko Udalaren zerbitzuko langileen 2019ko asteguneko jaiegunen egutegia onestea; hala, ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren jaiegunak 2019an zein diren zehaztu zuen. Hona hemen:

–Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.

–Urtarrilaren 7a: Errege egunaren ondoko astelehena.

–Martxoaren 19a: San Jose.

–Apirilaren 18a: Ostegun Santua.

–Apirilaren 19a: Ostiral Santua.

–Apirilaren 22a: Pazko biharamuna.

–Maiatzaren 1a: Langileen Eguna.

–Abuztuaren 15a: Andre Mariaren Jasokundea

- Abuztuaren 16a: Tokiko besta

–Urriaren 12a: Pilareko Andre Maria.

–Azaroaren 1a: Santu guztien eguna.

–Abenduaren 3a: Frantzisko Xabierkoaren eguna.

–Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna.

–Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

Gainera 4 jaiegun, gehiago ezarri dira, langile bakoitzak hautatzekoak, baldintza izanik ez dela udala jendearendako itxiko.

Orobat, baliogabeak izango dira, 2019an epeak kontatzeari dagokionez, larunbata eta igande guztiak eta udal bulegoetako jaiegunak.

Basaburuko Udaleko lanaldiaren urteko lanordu kopurua 1.592 izango da eta honela banatuko da:

Astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko lanaldia, orokorrean, 7 ordu eta 20 minutukoa izango da, 7:30etatik 16:00etara.

A) Jendea hartzeko eta Erregistro orokorra irekitzeko ordutegia 9:30etik 13:30era izango da.

B) Organo administratibo eskudunek erregelamenduz ezarritako oporrak emango dituzte, gisa honetan: oporraldi luze bat edo bi eta egun solteak, urtean zehar hartzeko, zerbitzuko beharrek hala uzten dutenean.

Horrez gainera, langileek probesteko 3 egun izango dira, norberaren aferetarako, Alkatetzari aurretik behar beste denboraz eskatu eta arrazoitu behar zaizkionak.

C) Aurreko ataletan aipatutako lanaldiaren banaketa eta oporrak ez zaie aplikatuko, zerbitzuko beharrak direla-eta lanaldi berezi suerteren bat dutenei, ezta haur eskolara atxikitako langileei ere, horiek beren lan egutegia izanen baitute; hala ere, orokorrean ezarrita dagoen urteko lanordu kopurua errespetatu beharko dute.

Nolanahi den, urteko lanaldiaren iraupena baldintzatuko du 2019rako orokorrean Nafarroako Administrazio Publikoetarako behin betiko ezartzen denak. Horretarako, aldaketaren bat izanez gero, behar diren egokitzapenak egingo dira.

Bildutakoek aho batez onartzen dute 2019ko Basaburuko udaleko langileek lan egutegia eta argitaratzea agintzen du Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

4.- Berueteko 12. Poligonoko 548. Lursailean kanpamentu turistikoa jartzeko parte hartze planaren onespena.

Alkateak azaltzen du Berueteko 12. Poligonoko 548. Lursailean kanpamentu turistikoa jartzeko proiektua martxan jarri nahi duela lursaileko jabeak, osotara 15 bungalow

jarriko ditu eta bi facetan egingen du proiektua lehenik 8 etxola jarriko ditu eta 2. Fasean besteak.

Gainera sarrera gunea, denda txiki bat, komuna eta jatetxea jarriko ditu lursailaren sarreran egokituko duen eraikin batean ere.

2017/1 Hirigintza eta Lurralde Antolamendu foru legearen 7 artikulua arabera “, *foru lege honetan aipatzen diren lurraldearen edo hirigintzaren antolamenduko tresnetako edozeinetan, herritarrek parte hartzeko hogeitaz eguneko epea izanen da gutxienez, behin betiko onetsi baino lehen, jendaurrean jarritz eta, hala behar duenean, toki entitateei entzunaldia emanaz.*

Foru lege honen 28.1 artikuluan ezarritako lurralde antolamenduko tresnek, udal plan orokorrek, plan partzialek, plan bereziek eta hiri-jarduketarako plan bereziek, bai eta urbanizatzeko berriak planteatzen dituzten planeamendu-aldaketek ere, herritarren partaidetza egiazkoa eta eraginkorra izanen dute, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen IV. tituluan jasotako printzipio eta eskubideen arabera; horretarako, herritarrentzako partaidetza-prozesu bat erabiliko da, kontsulta-izaerakoa, tresnaren hasierako onespena baino lehen. Partaidetza-prozesua partaidetza-plan baten bidez egingen da, zeinak honakoak izan beharko baititu gutxienez: planeamenduan interesatuta dauden gizarte-eragile eta herritarren identifikazioa; antolamendu-proposamen garrantzitsuenen laburpenak, herritarrek errazago uler ditzaten eta errazago zabal daitezkeen herritarren artean; bideragarritasun eta iraunkortasun ekonomikoari buruzko memoria; zabalpenerako eta partaidetzarako metodologia eta tresnak, barne direla bai online parte hartzeko sistemak, bai bilerak etorkizuneko antolamendua eta baloratuak aldatzeko; eta, azkenik, gauzatutako partaidetza-prozesuaren konklusio baloratuak.

Jada parte partze planaren argitaratzea egin da udaleko tabloian eta kanpamentua jarri nahi den lursailen ondoko jabeekin bilera proiektua azaltzeko. 20 eguneko alegazio epean ez dira aurkeztu. Zintzilik gelditzen da Berueteko kontzejuarekin bilera egitea proiektua aurkezteko, hortaz bildutakoek aho batez ondoko erabakia hartzen dute, 2017/1 Hirigintza eta Lurralde Antolamendu foru legearen 7 artikulua arabera:

- Onartzea Berueteko 12. Poligonoko 548. Lursailean kanpamentu turistikoa jartzeko parte hartze plana eta honen jakinarazpena sustatzaileari helaraztea, adieraziz, parte hartze planaren arabera Berueteko kontzejuarekin bilera egin behar dutela proiektua aurkezteko.

5.-Moziokak.

Alkateak adierazten du ez dagoela moziarik.

6.- Batzordeen informazioa.

- Gizarte Politika Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Ultzamako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateko bilera egin zen kultura arlokoa, hurrengo 6 hilabeteko plangintza aurkezteko. Zonaldean 4-5 tailer egingen dira eta parte hartzeko mankomunitatean izena eman behar dute interesdunek. Basaburuan, Beramendiko elkarteak Munduko sukaldaritza tailerra egingen dute. Tailer bakoitzean parte hartzeko 5 euro ordaindu beharko dira.

Bestetik Gizarte Politika Batzordean eskatua eta mankomunitatetik bideratua, menopausiari buruzko tailerra antolatuko dute Maria Muñozek emanen du. Hiru eguneko tailerra izanen da, asteazkenetan eta otsailaren 28an hasiko da.

Bestetik otsailaren 21ean Sexualitatea, teknologia eta nerabetasunaren inguruko tailerra ere burutuko da.

Bukatzeko adinduen gelaren kudeaketa martxan jartzeko bilera bat egingen da otsailaren 5ean Basaburuko herrietako adindu talde batekin, gelaren erabilera zehazteko.

Desfibriladorea kontsultategian jarriko denez, eta bere funtzionamendua ikasteko BTT egunaren barruan Lehenengo sorospen eta desfibriladorearen erabilera tailerra antolatzen ari dira batzordean.

- Kultura Batzordea. Aitor Arangoak ematen du informazioa.

Santa Ageda eguna otsailaren 4 ospatuko da, aurten Itsaso eta Ihabenen ibiliko dira kantuan.

-Kirol Batzordea. Bakartxo Ripaldak ematen du informazioa.

Pala txapelketa hasiko da Latasako frontoian.

-Ogasun Batzordea. Bakartxo Ripaldak ematen du informazioa.

Urtarrileko fakturak aztertu eta ordaintzea erabaki zen eta 2018ko zordunei gutuna bidali 15 eguneko epea emanaz ordainketak egiteko Geserlokalerara bidali baino lehen.

- Garapen Batzordea. Xabier Azpirozek ematen du informazioa.

Cederna Garalurrek kontratatu nahi duen garapen teknikariaren lan eskeintza argitaratu dute, eskaerak egiteko epea otsailaren 14 arte izanen da.

- Hezkuntza Batzordea. Esther Lakastak ematen du informazioa.

Haur eskolako hezitzaile lanposturako azterketak egin ziren eta orain otsailaren 2an zuzendari lanposturako azterketak egingen dira. Ondoren azterketa psikoteknikoa egingen da eta behin betiko puntuazioa argitaratu.

Bestetik eskolan konponketak eta obra berriak egiteko dirulaguntza deialdia argitaratu da eta proposatuko da kanpoko ballak eta egurtegiaren atea jartzea segurtasuna bermatzeko justifikazioaren baitan.

Bukatzeko UEMAren jarraipen batzordea egin zen urtarrilaren 31ean euskara planaren aurkezpena egiteko. Eskolarekin bilera egingen da UEMAren laguntza eskeintzeko hizkuntza planarekin jarraitzeko.

7.- Informazio orokorra.

- Dorrea Gaztandegiarekin bilera egin da eta aurkeztu industrialgunearen egitasmoa. Bi aldeak ados geldituko dira elkarrekin lan egiteko proiektua aurrera eramateko. Momentu honetan empresa haunditu nahi dute eta poligonoaren tramitazioa luzerako joanen denez, NGko baimena behar dute proiektu honetarako.

8.-Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 18:30 ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.